



ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA

KLARINETEA

2010eko otsailaren 9a

2010eko otsailaren 9an Musikenek Ateak Zabaltzeko jardunaldia antolatuko du Klarinete espezialitatean. Bertan esku hartuko dute, izena eman nahi dutenez gain, espezialitateko irakasle den José Luis Estellés-ek, Pianojole Laguntzailearekin Errepertorio irakasle den Pedro José Rodríguez-ek eta Musikeneko Klarinete ikasleek. Klarineteko eskolak, gainera, Antoy Pay, Carlos Gil, Sergio Barranco eta Henri Bok irakasleek osatzen dituzte.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten klarinete ikasleak eta, hala suertatzen bada, jardunaldian zehar eskolaren batean modu aktiboan partehartu nahi dutenak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Zein da jardunaldien helburua?

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenak bideratzea, gainditu beharreko sarrera-probak direla eta.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Zer egin behar dut joateko?

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** beharrezkoa da, **izena emateko orriaren bitartez**.

Zein da lan-egitasmoa?

ASTEARTEA, 2010eko otsailaren 9a

09:30 **Ateak Zabaltzeko Jardunaldiaren** aurkezpena.

10:00-14:00 José Luis Estellés-ek eskola emango dizkie Musikeneko ikasleei, jardunaldian parte hartzen duten guztientzat irekiak.

14:00-15:00 Musikeneko kafetegian bazkaria. Bertan parte hartzaileek Musikeneko ikasleen esperientziaren berri jasotzeko aukera izango dute, iritzien hartu-emanaren bitartez.

15:30-18:00 José Luis Estellés eta Pedro José Rodríguez-en eskutik eskola majistrala izena eman duten ikasleentzat, proposatutako errepertorioarekin eta orokorrean interesgarri irizten diren gaiekin.

18:00-20:30 José Luis Estellés eta Pedro José Rodríguez-en eskutik eskola majistrala izena eman duten ikasleentzat, proposatutako errepertorioarekin eta orokorrean interesgarri irizten diren gaiekin.

20:30 Jardunaldiaren itxiera.

Non dago Musikene?

MUSIKENE

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Miramar Jauregia

Mirakontxa, 48

20007 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943 316778

Faxa: 00 34 943 316916

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu:

<http://maps.google.es/maps?hl=es&tab=wl&q=palacio%20miramar>